



## ALEX TXIKON: “60 ORDU BAINO GUTXIAGOAN MANASLUKO GAILURRERA IRISTEA LORTU DUGU. NIRE IBILBIDEKO ESPERIENTZIARIK ZORROTZ ETA GOGORRENETAKO BAT IZAN DA”

- Egia da oraingo honetan argi neukala aukera izan bezain laster azkar egin nahi genuela, baina agian ez hainbeste. Gauez zenbat eta ordu gehiago egin, orduan eta aukera gutxiago gailurrera heltzeko, izozketak egiteko aukera gehiago baitituzu. Baina parada genuen eta aprobeixatu beharra zegoen, erantsi du akituta Katmandutik.
- “Gailur hau Simone Morori ere zor diogu, bera bakarrik jaitsi baitzen C2tik CBra, igotzen jarraitzeko indarra bazuen ere jaitzeko orduan taldea oztopa zezakeela uste zuelako”

**Bilbon, 2023ko urtarrilaren 08an.-** “Igoera oso gogorra izan da, oso zorrotza eta arriskutsua, izugarritzko sendotasun fisiko eta mentala eskatu diguna. Mendia uste baino askoz zailagoa eta egoera txarragoan zegoen” kontatu du Alex Txikonek Katmandutik. Izan ere, historia egin eta bi egun geroago, Alex Txikon helikopteroz joan zen atzo bertara, Nepalgo eskalatzailer taldearekin egin duen igoera bezain azkarra izan den makaltasuna sendatzeko.

Nepalgo hiriburutik, alpinista bizkaitarrak bere ibilbide profesionaleko esperientziarik zorrotz eta gogorrenetako bat izan denaren balantzea egin nahi izan du, bere neguko bigarren zortzimilakoa.

Eta ez da gutxiagorako. 60 ordu baino gutxiago behar izan ditu Alex Txikonek Manaslu mendiaren gailurrera igotzeko (8.163 metroko altuera itsas mailatik) eta CBra onik itzultzeko. Ziurrenik, bere ibilbide profesionaleko bi egun eta erdi zorrotzenak eta gogorrenak izan dira. Muturreko hotza, izotza eta haize zakarra lagun izan dituzte ibilbide osoan. Izan ere, tenperaturak -45º-raino jaitsi dira, eta haize boladak orduko 50km-raino iritsi dira. “Zaila da jendeak baldintza horiek zer suposatzen duten jakitea. Gure bularraren eta luma-jantziaren artean genituen kantinpletako ura izoztu egin zitzaigun. Inoiz ez zaigu horrelakorik gertatu” kontatu dute. Beharbada, muturreko baldintza horiek zirela eta “modu kontserbadoreagoan, denbora luzeagoz egitea” egitea pentsatzen zuen Txikonek.





“Egia da oraingo honetan argi neukala aukera izan bezain laster azkar egin nahi genuela, baina agian ez hainbeste. Gaeuz zenbat eta ordu gehiago egin, orduan eta aukera gutxiago gailurra egiteko, izozketak sufritzeko aukera gehiago baitituzu. Baina indar eta adore handia atera genuen eta zorionez, lortu dugu”, erantsi du akiturik.

Urtarrilaren 4an hasi zen dena, 8:00etan, beharrezko materiala jaso eta motxila bizkarrean hartu zutenean. “Eguraldi ona zegoen, girotuta geunden eta altuera irabazteko aukera ona genuela sentitzen genuen. Lehenengo zatian, mendiak aurreikusitako zailtasunak izan zituen, baina euren esperientziari esker ez zuten arazo handirik izan horiek konpontzeko. Hurrengo tartea, ordea, C2ra eraman zituena, “bizitzan egin dudak zailenetako bat izan zen, zalantzarik gabe. Oso gogorra eta korapilatsua izan zen. Oso arriskutsu zegoen, egia esan. Beldurra pasatu genuen”.

Kanpatu eta gaua egin zuten, eta urtarrilaren 5ean C3ra abiatu ziren (6.950 metro). “C3ra iristean, jarraitu beharrek estrategia pentsatu genuen, ea hobe zen atsedean gehiago hartzea edo gailurrari erasotzea. Baina han geunden eta aukera genuen. Aprobetxatu beharra zegoen. Ez genuen begirik bildu, eta gaueko 23:00etan gailurrera atera ginen eta bertara heldu ginen 9:30etan. Pinakuluaren parean (7.992 metro), gailur nagusira iritsi aurreko azken zatian, egunez egin zitzaigun. Azken zati hau oso luzea egin zitzaigun. Bazirudien ez zela inoiz amaitzen... Espedizio komertzialak geratzen ziren lekua ikusi genuen, baina igoyeraren aurreko argazkiak aztertuta jakin genuen benetako tontorra aurreraxeago zegoela. Ibilaldi txiki bat egin genuen eta taldeko kide guztiak iritsi ginen gailurrera. Gero, pixkanaka jaisten hasi ginen, eta hori zen, zalantzarik gabe, erronkaren gauzarik zailena.

Taldeko kide guztiak heldu ginen gailurrera eta pixkanaka jaisten hasi ginen. 18:00etan txikituta iritsi ginen Oinarrizko Kanpamentura. 60 ordu baino gutxiagoan lortu genuen erronka guztia”, azaldu du Txikonek. Izan ere, euskal alpinistak historia egin berri zuen: historian lehen aldiz Manaslu mendira igo zen, neguko espedizio batean, oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe.

“1984ko espedizio poloniarrari balioa eman nahi nioke. Izugarritzko meritua izan zuten. Errespetu osoa alpinista horiei. Guk haiek ez zituzten tresnak eta informazioa izan ditugu. Egia da, halaber, gure espedizioa negukoa baino ez dela izan, eta haiek udazkenean hasi zutela beren espedizioa. Baldintzak asko aldatzen dira abendu amaieratik urtarrila arte. 24 ordu baino gutxiagoan aintzira erdia nola izozten zen ikusi dugu” gehitu du euskal alpinistak.

Azkenik, Txikonek zorionak eta eskerrak eman nahi izan dizkie bere ibilbidean zehar babesa eman dioten pertsona guztiei, eta, batez ere, mendi klub eta federazioei, baita kolektibo zaugarri guztiei ere. Simone Moro bere taldekide italiarrari ere eskerrak eman dizkio, izan ere, “gailur hau Simone Morori ere zor diogu, bera bakarrik jaitsi baitzen C2tik CBra, igotzen jarraitzeko indarra bazuen ere jaisteko orduan taldea oztopa zezakeela uste zuelako”. Bere





babesleek ere parte garrantzitsu bat hartu dute euren eskerren zerrendan, horiei esker “amets hau egia bihurtu baita”.

#### INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK:

BIOK COMUNICACIÓN ESTRATÉGICA

Naroa Hernansanz // [naroa@biokcomunicacion.com](mailto:naroa@biokcomunicacion.com) // 687 13 94 09

#### MATERIAL GRAFIKOA

<https://prensa.alexixikon.com/>

Erabiltzailea: prensa2021

Pasahitza: txikonmanaslu2022\*

